


# SOLUZIOAK URRIA

Hona hemen urrian Euskal Herriko herri desberdinetako umeez beraien toki aldizkarietako jolasen txokoan aurkitu dituzten jolas desberdinen soluzioak.

Bilatu beraz, guztien artean zure herriko aldizkarian proposatu zaizkizun jolasei dagozkienak eta dagoen aukera zabala ikusita, gehiagoren gogoarekin geratu bazara, zure aldizkariaren hurrengo alea iritsi bitartean jolasten jarrai dezakezu gure [jolas parkean](#).

## ZIKULU-Saltsa

Gure sorginak ezin du asperduraren aurkako bere edabe magikoa prestatu, osagai garrantzitsuenak desagertu zaiolako. Edabe magikoaren formula sekretua denez, ezin da esan zein den osagai hori, baina uste dugu gozo-gozoa dela. Nolanahi ere, nor demontre izan ote da lapurra? Hemen ageri diren adiskideen artean zeinek ostu ote dio sorginari osagai? Ea asmatzen duzun.



- Zenbait pista:
- Begiak zabal-zabalik ditu.
  - Belarriak ez ditu tente.
  - Ez da iluna.
  - Arrautzak erruten ditu.
  - Zomorro txikiak jaten ditu.
  - Bere espeziean bakarra da.
  - Ez da narrastia.

## Labirintoa

Lagundu erroiari bere zuhaitzeraino heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalen. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esatera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tartea dira.



Idatzi hemen esaldia. **BATASUNA BELDURRETIK SORTZEN DA**



## itzala

Zein da mamuaren itzal zuzena?



## Izua

Osa ezazu sudokua, IZUA hitzak dituen hizkiekin.

U	I	A	Z
Z	A	I	U
I	U	Z	A
A	Z	U	I

Bi irudi hauen artean hamahiru alde daude. Ikusten al dituzu?

## ZU bai Hamalari!



## Engainariak

Zati hauetariko lau ondoko iruditik hartuta daude eta gainerako bostak engainariak dira, hau da, oso antzeakoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



